Artzape

getariarron topagunea

2020ko abendua

209. zbk

MIRENE BEGIRISTAIN, BIZI EREDU BERRIRANTZ

BERTAKOTZEKO TRESNA ERE BADA EUSKARA

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

K
KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

EDITORIALA ETA AURKIBIDEA

8-9 Klik batean

10-14 Elkarrizketa: Mirene Begiristain

4-5	Salberak Itsaskabrari
6-7	Iritzia: Aitor Irigoien
8-9	Klik batean
10-14	Elkarrizketa: Mirene Begiristain
16-19	Erreportajea: euskara ikasleak
20	Elan Euskadi
21	Artzapetik begira: Ximon Aranguren
22	Harritarten txutxupeka
23	Urritza Aisialdi Elkartea
24	Getariako hitza eta Gomendioa
25	Pasa denbora
26	Agenda

2020ko abendua 209. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / info@artzape.eus
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Intza Gurrutxaga.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Joseba Fuentes.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Edurne Irigoien, Eider Iribar, Elan Euskadi GKE, Fuldain farmazia, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti, Ximon Aranguren eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIGOR SAIZAR

Ibon

Oraintxe beteko dek urtebete ezagutu niala. Markinarra bera, altua, ile-kixkurra, alboan jarriz gero, norbera lotsagarri uzteko gorpuzkera. Bizkaieraz egiten zian, batekin eta besteakin, hori hitz-jarioa! Hori erraztasuna lagunak egiteko, herritarrekin integratzeko! Ezagutu al dek sekula euskaldun-andaluzik? Nik bai: Ibon.

Kirolari aparta (Hawaiiko Ironmanean aritutakoa, besteak beste), Hezkuntza Fisikoko irakaslea, baina batik bat, lagunak egiteko makina hutsa. Miresmenez begiratzen nioan surfisten artean olatuez nola hitz egiten zian; edota bizikleta gainean Donostialdera joan, Goierrira ala Lekittora, nola edozein bazterretan norbaitekin topo egin eta "hau lagun mina dot" esaten zitxan; gure taldean sartu berria izan arren, norbaitek zerbait falta edo laguntza behar bazian, nola eskaintzen huen bera.

Umorerako gaitasuna, bizitzari zukua ateratzeko grina, familiarekin nahiz lagunekin bizitza *derrapatzen* bizitzeko gogoa. Ibon.

Hik eta nik, eta beste hainbat getaiarrek, saltaka hamaika aldiz egin diagun errepidean, Askizuko bidegurutzetik gertu, zitxian Ibon zankada bizian. Bere ondoan altueraz sorbaldara justu iristen zaion lagun mina, baina bera bezain handia: Jokin. Kotxe batek atzetik jo eta airean bota zizkian. Bati sorbalda eta besoetako hezurrak hautsi zizkioan. Besteari hanka moztu.

Berria jakin bezain laster eskuak aurpegira eraman nizkian. Mina. Negarra. Bi lagun. Bizia arriskuan ez zutela jakin bezain laster bakoitzari bi ahots-mezu bidali nizkiean, jakin arren ziurrenik telefonoa gainean ez zutela izango eta egunetara entzungo zutela. Nire beharra huen gehiago beraiena baino. Gau hartan, ordea, istripuko egun berean, Ibonen mezua jaso nian: "Eskerrik asko".

Bi hilabete hauetan berekiko miresmena milagatik biderkatu dek. Ospitalean zegoan lehenengo egunetatik gimnasioan jo ta su nola aritzen huen erakusten ziguan, bere buruaz barre eginez, egoera gogor hari alde positiboak une oro bilatuz. Bere logelakidea martxan jartzen zian ariketak eginez, erizain eta medikuak dantzan. Han ere nagusi. Batekin eta besteakin, lagunak eginez. Berriz ere esango zidak hurrengoan "aiba, hori ere lagun mina dot". Euskaldun-andaluza.

Kotxez jo zituen gidaria psikologikoki jota omen zegoala jakin zian. Berekin kafe bat hartzeko geratu hituen Ibonek deituta. Bien arteko besarkada estuak betirako lotuko dizkik. Ibon enkontru hartara, ordea, ez huen joan pertsona onaren medailak jartzera, ez; atzeraezina den mina eragin zion pertsonari gorrotorik ez ziola adieraztera baizik, istripua izan zela, nahi gabe egindakoa. Gidariak zoritxarrean zorte ikaragarria izan dik, aingeru bat ezagutu zuela esan zian. Eta Ibonek beste lagun bat gehiago. Enegarren irakaspena, maisuak, inoiz lezioak emateko asmorik izan ez arren. Umila, apala eta, era berean, handia.

Arestiren olerki ezagunean oinarrituz "....*eskuak ebakiko dizkidate, eta* (...) *besorik gabe, sorbaldik gabe, bularrik gabe, utziko naute* (...) *baina nire irribarreak zuengan, familia eta lagunengan, iraunen du zutik*".

Laster, ekaineko bigarren larunbat batean, Malkorbe hondartzan ikusiko diagu, igerirako prest, irteera arkuaren azpian, lagun batekin eta besteakin irribarrez. Ibon.

JON ANDER DE LA HOZ

Ibon, Jokin, Irati, Alain...

Nik ez diat Ibon ezagutzen. Istripuaren unean harekin lasterka zihoana adiskidea diat, ordea, eta badiat oikiarraren tamainaren berri. Ez nauk garaieraz ari, jakina. Altueratik baino, sakoneratik tiraz ari nauk. Halere, esan

bezala, ez diat Ibon ezagutzen, Zigor, baina urri hasieratik badiat haren aditzea. Getariatik mila kilometro baino gehiagora jakin nian istripuaren berri; sarri-sarri neronek zapaldutako asfaltoan zerbait larria gertatu zela-eta, neure onera itzuli ezinik egon ninduan minutu luzez.

Ordutik, pentsatu izan diat une batek nola alda dezakeen bizitza. Urrutira joan gabe, istripua pairatutako biei Zumaiako *Baleike* aldizkarian egindako elkarrizketak eman zidakean horretarako beta. Ibonek berak esana dek, hitzez hitz: "Astiroago korrika egin genezakeen edo zapatilak lotzera gelditu... segundoetako kontua izan zen". Segundoak. Bizitza.

Gertatua jazo, ordea. Agerikoa dek gisa horretako istripu batek bizitza aldatu, edo gutxienez, egokitzeko premia dakarrela berekin. Zirrara sortzen zidak Ibonek erakutsi duen bizitzeko grinak, han-hemenkako hedabideetan horren ageriko utziak.

Ezinbestean, Iratiren kasua etorri zaidak gogora. Bizitza zelebratzearen aldekoa izan nauk beti, eta bataren eta bestearen kasuak liluratuta utzi naitek. Trabak traba, horixe egin baititek, finean. Asmatu ditek ezbehar baten ondoren berrasmatzen, zukutzen; arreta paratu Iratik Radio Euskadin, *Artzapen*, edo Deustuko Unibertsitatean orain gutxi emandako hitzaldiei, eta ohartuko haiz horretaz.

Maila handiko kirolaria dek Ibon, goi mailakoa egin zaiguk Irati. Alainen mailaz jabetzeko ez zagok bere kirol ibilbideari erreparatu besterik; jakin bazekiat giza mailan goratzeko motiboak eman dituela Zumaia bideko istripu horren ostean.

Ez nauk haien guztien egunerokotasunean izan eta ez nikek eremu labainkorrean sartu nahi, baina, nire ezjakintasunetik, irudipena diat irabazi dutela izerdiaren aldean handia den zerbait: bizitza. Gidariarekin hartutako kafea testigu; halako keinu batek azaleratzen duen maila humanoa kalkula ezina iruditzen zaidak. Iboni Euskadi Irratian egindako elkarrizketan entzun nian Iratik zer mezu bidali zion: "Lasai, aurrerantzean ez zara ezkerreko hankarekin jaikiko, behintzat". Ondo erreparatuz gero, bizitzarekiko jarrera bat laburbiltzeko esaldi borobilagorik, sakonagorik, nekez aurkituko diagu. Hori duk neretzat goia jotzea.

Kiroldegiko zozketa

Hilabete honetan, Sahatsaga kiroldegiaren eskutik, **pilates saioetarako hilabeteko bonua** zozkatu dugu Artzapeko bazkideen artean.

Irabazleak, edo berak aukeratutako senide batek, **hilabete honetan ikastaroa** egin ahal izango du **doan**.

Abenduko irabazlea:

Irantzu Urresti Iribar

Zorion agurrak

Artzapek inguruko pertsona estimatu hori **zoriontzeko aukera** eskaintzen dizu, bai **aldizkarian** bai **webgunean**.

Zorionak, lagun!

Bidali mezua **688 716 609** zenbakira edo **info@artzape.eus** helbidera. Prezioa: 4 euro (2 euro bazkideek).

AITOR IRIGOIEN

Ezin dut arnasik hartu

"Mesedez! Ezin dut arnasik hartu! Tripako mina dut, eta lepokoa! Gorputz osoko mina! Horrela hil egingo nauzue!". George P. Floyden azken hitzak izan ziren. Maiatzaren 25ean izan zen, Minneapolisen (AEB). 46 urte zituen, eta afroamerikarra zen. Kalean, lurrera bota zuten eta polizia batek belaunarekin lepoa zapaldu zion bederatzi minutu luzez, asfixiatuta hil zen arte. Bere delitua: denda batean 20 dolarreko billete faltsu batekin ordaintzea.

Zoritxarrez, ez da kasu isolatu bat. AEBtako ordenaren baitako adibide txiki bat baizik, urte luzez urtero gertatzen den zerbaitena. Hala, erailketa hori salatzeko protestetan, beste hainbat pertsona ere tirokatu eta hil zituzten. Handik gutxira, abuztuaren 23an, Wisconsinen, Jacob Blake, 29 urteko afroamerikarra, bere hiru semealaben aurren erail zuen poliziak, bizkarretik zazpi tiro bota ostean. Etxeko iskanbila bat medio, bere bikotekidearekin eztabaidatu eta haren kotxera sartzera zihoan.

Estatu Batuak eredutzat hartzen dute milaka pertsonek munduan zehar. Baina zeren eredu? Osasun eta hezkuntza sistema publiko sendo batena? Aukera berdintasuneko gizarte batena? Baliabideen banaketa justu batena? Askatasun eta eskubideen herrialde batena? Ezezkoan nago ni. Euren alde positiboak ukatu gabe, garbi baitago sistema bezala akats eta hutsune handiak eta larriak dituela ezinbestekoak diren arloetan. Arazo horietako bat da arrazismoa, eta horri lotutako polizia indarkeria.

Arrazismoa eta jazarpena alor guztietan –gizarte, hezkuntza, epaitegi, legedi, lan mundu,

enpresa, aginte organo– eta jaiotzen zaren une beretik, txiki-txikitatik. Eta horrela mende luzeetan zehar, aurrerapenak aurrerapen eta agintean errepublikarrak edo demokratak egon.

Indarkeria askoko gizartea da AEBtakoa. Horretan eragin zuzena du bertan armak eskuratzeko dagoen erraztasunak eta aipatutako gizarte desberdintasunak. Urtero 15.000 hilketa izaten dira; espetxetan 2,2 milioi pertsona daude preso –hainbat proba finkorik gabe–; poliziak 1.000 pertsona inguru hiltzen ditu urtero, gehienak beltzak; eta noski, polizien %77 zuriak dira eta erailketa horiengatik ia inork ez du zigorrik jasotzen. Beltzek poliziak erailak izateko zuriek baino hiru aldiz probabilitate handiagoa dute.

Zenbat balio du pertsona baten bizitzak? Desberdin balio al du batzuenak edo besteenak? Zenbat mailatako pertsonak daude? Biktima batzuen minak besteenak baino gehiago mintzen al du? Zergatik

"Azkenean, ez ditugu etsaien hitzak gogoratuko, adiskideen isiltasuna baizik", Martin Luther King.

batzuk errugabe dira kontrakoa probatu artean, baina beste batzuk errudun aurkakoa probatu arte?

Arrazismo sistematiko horren ondorioz, poliziaren indarkeria betikoen aurka zuzentzen da. Eta herritar guztiek finantzatzen dute biolentzia hori. Nor da, beraz, poliziak egindako hilketen erantzule? Belauna jarri edo tiroa bota duen agentea edo hori horrela egiteko agindua ematen duen polizia burua? Edo hori baimentzen eta estaltzen duen presidente edo ministroa? Eta ekintza horiek nolabait justifikatzen saiatzen diren komunikabideak? Edo erantzuleak errugabe izendatzen dituen epailea? Nolatan jasotzen du zigor handiagoa hilketak salatzeko protestetan harri bat jaurti duenak hilketa egin duenak baino?

Zoritxarrez, halako egoeren berri izateko, ez dago hain urruti joan beharrik. Estatuan, 1999tik 571 polizia indarkeria eta arrazismo kasu antzeman dira, baina soilik lau agente zigortu dira. EAEn bakarrik, 1960-2013 artean, 94 pertsona erail zituen poliziak.

Hori guztia ikusita, non daude hainbestetan entzuten ditugun etika eta giza eskubideak? Nola hitz egin bakeaz edota zibilizazioaz? Zer egin dezakegu hau dena aldatu eta iraganetik datorren orban handi hau behingoz gainditzeko? Denbora beharko du horrek, baina argi izan behar dugu gizarte edota norbanako bezala ezin garela isilik geratu. Ezin dugu aipatu hilketetako bakar bat ere ontzat eman, normaltzat jo. Horrela eginez gero, konplize bilakatuko baikinateke. Jarrera kritiko eta zorrotza ezinbestekoa da arrazakeriaren, polizia indarkeriaren eta erantzuleen zigorgabetasunaren aurrean. Angela Y. Davisek esan zuen bezala, "gizarte arrazista batean, ez da nahikoa arrazista ez izatea, arrazakeriaren aurkakoa izan beharra dago".

ZAINTZA EGUNAK

Abenduaren 7an eta 9tik 12ra

FULDAIN FARMAZIA



Elkano eta Kaiarentzat BMW Más Gastronomía saria

Euskal gastronomiaren alor ezberdinak saritzen ditu urtero BMW Más Gastromía sariketak. Pandemia egoeragatik, Internetez egin dute aurten sari banaketa, azaroaren hasieran.

Ibilbide profesionalaren saria Maria Jose Artano eta Maria Rosa Larrañagarentzat izan da, Elkano eta Kaia jaetxeetan, hurrenez hurren, egindako lanagatik. Bien jardunari esker ona izateaz gain, sari hau ostalaritzan dabiltzan emakumeei aitortza ere badela nabarmendu zuen Javier Yurritak, sari banaketako aurkezleetako batek.

Artanok eta Larrañagak argitu zuten "oso harro" daudela saria jaso izanagatik. "Hala ere, familiaren lana aitortu egin behar da, Pedrorena eta Andonirena", gaineratu zuten. Bestalde, euren semeei, Aitorri eta Igorri, eskerrak eman zizkieten gaur egun egiten ari diren guztiagatik.

Maria Rosa Larrañaga eta Maria Jose Artano eskerrak ematen, sari banaketan.

480 getariar inguru Euskaraldian

Duela hainbat aste amaitu zen Euskaraldian Arigune rolean izena emateko aukera. Getarian 50 entitatek erabaki genuen parte hartzea.

Pasa den astean, aldiz, Belarriprest eta Ahobizi gisa apuntatzeko epea bukatu zen. Orotara, 480 getariar inguruk erabaki du ekimenarekin bat egitea, eta azaroaren 20tk abenduaren 4ra soinean txapa dutela dabiltza.

Sara Saizar Getariako dinamizatzaileak azaldu duenez, igoera txiki bat izan da aurreko ekitaldiarekiko eta gustura dago, izan ere, inguruko beste herri batzuetan jaitsi egin da parte-hartzaile kopurua.

Euskaraldian, orotara, 147.000 herritarrek eman dute izena, %79ak Ahobizi modura eta %21ak Belarriprest bezala.

Belarriprest eta Ahobizi txapak.

Albiste gehiago **www.artzape.eus** webgunean...

2021eko aurrekontua aho batez onartu da

Urte asko dira halakorik gertatu ez dela: 2021eko aurrekontuak aho batez onartu dituzte udaleko bi alderdiek, EH Bilduk eta EAJk. Datorren urtean 3.671.000 euro izango ditu erakundeak egitasmoak garatzeko.

Pertsonei lotuta, besteak beste, gazteentzako alokairurako laguntzak, 65 urtetik gorakoen egoera ezagutzeko galdetegia eta pandemiak eragin dezakeenari aurre egiteko dirua erreserbatzea aurreikusten da. Gainera, entitateentzako laguntzetan ez da murrizketarik izango. Hirigintzan, hainbat kaletan hobekuntzak zein udal eraikinen saneamendua egingo dute, ikasgela lekuz aldatuko dute eta helduentzako ariketa gune bat jartzeko aukera aztertuko dute, beste batzuen artean. Horrez gain, turismo plana jarriko dute martxan eta lehen mundu biraren ekimenak bultzako dituzte. Azkenik, zenbait proiektu idazteko dirua bideratzea adostu dute.



Hainbat zinegotzi botoa ematen azken udalbatzarrean.

Azaroaren 25ean, eraildako emakumeei omenaldia

Aldarrikapen ekintza antolatu zuen Mariñak Getaiko talde feministak Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean. Eraildako eta erasotako emakumeak omendu zituzten. Horretarako, azken urteetan, erakundeak kontaketa egiten hasi zirenetik, zenbatutako emakumeen izenekin horma-irudia osatu zuten; plazara bertaratutako 40 lagun ingururen txalo artean jarri zuten.

Mariñakoek salatu zuten erailketak "estatistika hotz" bilakatu direla eta urtero 0tik hasten dutela zenbaketa, "hasi berria den partida bateko markagailua balitz bezala". Zenbaketa hori noiz amaituko den galdetu eta argitu zuten "haserrea eta amorrua kontzientzia kritiko bihurtuta", feminismotik patriarkatua suntsitzeko lanean jarraituko dutela.

Abendurako hitzaldi eta dokumental sorta prestatu du.

Azaroaren 25eko Mariñaken aldarrikapen ekintza.

...eta **Facebook**en.

MIRENE BEGIRISTAIN

"DESAZKUNDE KULTURA BAT ERAIKI BEHAR DUGU"

Gure gizartean, azken urteetan, lehen sektoreak gainbehera ikaragarria jasan du. Inguruan gero eta baserritar eta nekazari gutxiago ditugu, izan ere, kapitalismo eta kontsumismo bortitzean oinarritutako egungo ekonomia ereduak ez du proiektu txikien biziraupena bermatzen. Betiko legez, hemen ere handiak txikia jaten du. Alternatiba modura, agroekologia da proposamenetako bat.

TESTUA eta ARGAZKIAK
INTZA GURRUTXAGA

Mirene Begiristain (1972) jaiotzez andoaindarra da, baina duela 20 urtetatik Getarian bizi da. EHUko Ekonomia eta Enpresa fakultatean irakasle lanetan aritzen da; zehazki, Merkataritza-Zuzendaritza irakasgaia ematen du. Horrez gain, Mariñak Getariako Talde Feministako kidea ere bada.

Bere etxeko ateak zabaldu dizkigu eta lehen sektorearen nahiz agroekologiaren inguruan solasean aritu gara. Begiristainek argi du egungo eredua aldatzea nahitaezkoa eta saihetsezina dela.

Mirene Begiristain.

"Gure harremana naturarekin erabat eten da: landa-eremua ez da aisialdi eremu bat bakarrik"

Getaria eta bere ingurua San Prudentziotik ikusita.

Natur Zientzien IV. Topaketan parte hartzekoa zinen, baina atzeratu egin da.

Azkenengo urteetan topaketa askotan tokatu zaigu parte hartzea. Ni agroekologiako eta nekazaritzako gaietan duela 20 bat urte hasi nintzen, eta ordutik, sekulako bilakaera izan du. Eztabaida sozialean eta publikoan gaiak garrantzi handia hartu eta berebiziko hedapena izan du. Gaia mahai gainean dagoenez, jardunaldi horiek antolatu dituzte eta ahal denean erantzun egiten da.

Nondik edo noiztik datorkizu lehen sektorearekiko eta agroekologiarekiko interesa?

Aita eta ama baserrikoak dira, nahiz eta gero bizitzera kalera jaitsi. Ni kalean bizi izan naiz beti, baina uda denak Andoainen, aitaren baserrian, pasatzen genituen. Beraz, nahiz eta gaztetan pixka bat urrundu, beti izan dut baserriarekiko lotura hori.

Unibertsitatean lanean hasi eta nire ikerketa lerroa abiatu nuenean, gai horri eustea nahiko modu naturalean sortu zen. Merkataritza gaietan nenbilen, baina zer gertatzen da lehenengo sektorean? Momentu hartan ere, hainbat lekutatik lehenengo sektoreko ereduari –transgenikoen gaiari, nekazaritza ekologikoari...– heltzeko beharra sortu zen, eta ni hortxe hasi nintzen.

Etxetik datorkit, uste dut, oso barrutik. Ikerketan ez ezik, militantzian ere horretan dihardut, Gipuzkoako eta Euskal Herriko agroeklogia eta elikadura burujabetzako kolektiboetan. Gure etxean, denbora librea da mendia, auzolanak, uzta bilketa... Nire kasuan, lana eta denbora librea oso lotuta daude. Nolabait, bizimodu bat bihurtzen da.

Zer da agroekologia?

Agroekologia hitza arrotza egin ahal zaigu. Modu ulergarriagoan, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak "nekazaritza herrikoia eta iraunkorra" bezala definitzen du agroekologia. Tokikoa edo bertakoa kontsumitzea nahikoa zabaltzen ari den gauza da: bertakoa jan eta bertakoa kontsumitu. Baina, horrez gain, agroekologiak biltzen duen nekazaritzak oinarrian eredu iraunkorra izan behar du. Ezin dugu ekoiztu edozein modutan. Dimentsio produktiboa nahiz dimentsio sozial, ekonomiko eta kulturala biltzen ditu agroekologiak.

Egungo ekonomia eredutik agroekologian oinarritutakora igarotzeko, beraz, ez litzateke ekoizpen eredua bakarrik aldatu beharko.

Nolabait, agroekologiak elikadura sistema osoari begiratzen dio. Gaiak eta kontzeptuak modu banatuan ikastea oso barneratuta dago gure hezkuntzan, eta elikadura sistemarekin ere berdina gertatzen da. Hitz egiten dugu ekoizpenaz, banaketaz, kontsumoaz... katebegi independienteak balira bezala, baina elikadura sistema bere osotasunean hartu behar da. Agroekologiak hori egiten du. Guk ikuspegi sistemikoaz hitz egiten dugu, eta garatzen ditugun

agroekologiako ikerketetan hori kontutan hartzen saiatzen gara.

Esan genezake agroekologiaren helburua elikagaia ekoizten denetik gure platerera iristen den arteko ibilbidea jasangarri egitea dela?
Hori da, bidea da; ekoizten direnetik platereraino zein bide egiten duten elikagaiek. Horren harira, Europako nekazaritza publikoetan *Farm to Fork* (ingelesez "baserritik sardexkara") estrategia nagusi bat eraikitzen ari dira.

Proiektu horren helburuetako bat da, hemendik hamar urtetara, ekoizten denaren %25a ekologikoan ekoiztua izatea. Estrategiak martxan dira beraz, eta ezin da gehiago atzeratu. Azken hamarkadatan, nabarmenak dira ingurumenari, eta aldi berean nekazaritza ereduari, sortu dizkiogun kalteak.

Gaur egun, ekologia hitza bera ere hasierako oinarritik urrundu dela dio zenbaitek. Zein iritzi duzu horren inguruan? Zer dira elikagai ekologikoak?
Europako zigiluak, izarrez osatutako ostotxo horrek, ekoizpen eredua ekologikoa dela ziurtatzen du. Hau da, laburki esanda, pestizidarik eta kimikorik gabeko ekoizpena. Baina zigilu horrek hori bakarrik ziurtatzen du.

Orain dela 20 urte ekoizpen ekologikoa nahikoa proiektu txikietan ikusten genuen, eta ekologikoan ekoizten zutenak nahiko hippyak zirela ere esaten zen. Baina kezka eta arrazoi desberdinenak tarteko (osasun arrazoiak askotan, kalitatea, ingurumena...), gizartea, oro har, kalitatezko elikagaiei, ekologikoei eta, nolabait, garbiei begira hasi da.

Ondorioz, merkatu nitxoa zegoela ikusirik, ekoizpen enpresa handiak ere ekologikoan ekoizten hasi ziren. Horregatik, momentu honetan, ekologikoan ekoiztutako munduko beste puntako edozein elikagai topatu dezakegu. Horrek, ordea, berriro ere zentzua galtzen du; ez dauka inolako zentzurik bertan ekoiztu daitekeenean, Almeriatik ekarritako letxuga ekologiko bat jateak. Ekoizpen eredua oso garrantzitsua da, baina, era berean, tokikora salto egin behar dugu. Integraltasun hori da behar duguna.

Horrez gain, ikuspegi feminista txertatzea eskatzen duzue. Zer esan nahi du horrek? Zein inplikazio ditu?
Agroekologian bertan ere ez da kontutan hartu izan zaintza ikuspegia. Gaur egun, feminismotik egiten dugun aldarrikapenetako bat zaintza erdigunean jartzea da. Zaintza erdigunean jartzerakoan, elikadura osasuntsu baten beharra nahiz ingurumenaren zaintza ere erdigunean jartzen dira. Ongi elikatzea eskubide bat delako, batetik, gure zaurgarritasuna onartzen dugulako, eta bestetik, ingurumenaren zaintza eta ingurumenarekiko dugun dependentzia onartzen direlako. Horiek dira agroekofeminismoaren oinarrizko bi elementuak.

Gainera, elikadura zaintzaren parte da, eta elikadura ardurak emakumearen esku geratu izan dira ia beti. Hor desoreka handiak egon dira, eta momentu jakin batean, esan genezake zapalkuntza ere bai. Horrek, bai maila ekonomikoan bai maila sozialean, eragina eduki du.

Beste elementu garrantzitsua emakume baserritarren rola da. Baserri askori emakume baserritarrek eutsi diete, bereziki industrializazio garaian landa eremutik fabrikarako bidea hartu zenean; eta hori baieztatzen duten azterketa eta datu ugari daude. Aldiz, bai lurraren jabetzan bai baserrien titulartasunean, emakumeak ez du presentziarik eduki; bere eskubideak ez dira

"Elikadura zaintzaren parte da, eta elikadura ardurak emakumearen esku geratu izan dira ia beti. Hor desoreka handiak egon dira"

jaso izan. Horrek ondoren, adibidez, emakume horien kotizazioan eragina izan du, eta ondorioz, baita pentsioetan ere.

Agroekofeminismoa aipatu duzu, zer esan nahi du horrek?
Agroekofeminismoan agroekologia eta feminismoaren arteko lotura bilatzen da, hau da, nola eraman feminismoa agroekologiara, eta alderantziz, nola eraman agroekologia feminismora.

Ekofeminismoak bi elementu hartzen ditu kontuan. Batetik, naturarekiko mendekoak garela. Naturak muga batzuk ditu, eta muga horiek gainditu egin ditugu. Horren kontzientzia hartu behar dugu, egoera larri baten aurrean gaude. Egoera honetara iritsi gara ez garelako naturaren mendekoak garela jabetu izan. Gure harremana naturarekin erabat eten da: landa-eremua ez da aisialdi eremu bat bakarrik, hori baino askoz gehiago da.

Bestetik pertsonok elkarren arteko mendekotasuna dugu. Bizitzako etapa desberdinetan, modu batera edo bestera, elkarren beharra daukagu. Besteen zaintza behar dugu eta besteak zaindu behar ditugu.

Historikoki, emakumearen presentzia landa eremuan aktiboa baina, askotan, ezkutukoa izan dela esan daiteke. Gaur egun, ze egoera bizi du emakumeak ingurune horretan?
Orokorrean, egoera ez da gehiegi aldatu. Honetarako ere, feminismoan erabiltzen den icebergaren irudia aproposa da. Nekazaritzan ikusi izan dena oso puntatxoan geratzen da eta beste gauza asko ezkutuan geratu dira.

EBELek, Emakume Baserritarren Elkarteak, emandako 2018ko Gipuzkoako datuak ekarriko

Mirene Begiristain elkarrizketako momentu batean.

"Lehenengo sektorea oso sektore zaharkitua da, ez dago erreleborik. Datuek diote hamar urte barru ez dela lehen sektorerik egongo gure inguruan"

ditut. Esaterako, hamarretik emakume bakarra dago baserritar profesional bezala alta emanda. Baina hala ere, benetan, hamarretik zazpik egiten dute lan baserrian; gainera, hamar horietatik lauk baserritik kanpo ere egiten dute. Era berean, mendeko pertsonak bizi diren baserrietako familien %80an emakumeak arduratzen dira zaintza lanaz.

Erretiroa, bestalde, oso gai garrantzitsua eta kezkagarria da. 50 urtetik gorakoak dira hamar emakume baserritarretatik sei; eta 80 urtetik gorakoak hamarretik bi. Honek beste gai bat ere badakar: lehenengo sektorea oso sektore zaharkitua da, ez dago erreleborik. Datuek diote hamar urte barru ez dela lehen sektorerik egongo gure inguruan. Erreleborik ez egotearen hiru arrazoi nagusi azpimarratzen dira: gazteek baserritar izateko duten interes falta; bizitza duina ateratzeko izugarrizko zailtasuna –baserritarren errenta maila bataz bestekoa baino %30 baxuagoa da– eta lurra eskuratzeko zailtasuna.

Egungo ekonomia kapitalistaren baitan garatutako eredu agroindustriala jasangarria dela uste al duzu?
Eredu hau ez da iraunkorra. Ingurumenean inpaktu itzelak ari gara eragiten, eta sozialki ere ikusten dugu, eredu horren baitan, nekazaria edo baserritarra izatea ez dela jasangarria. Orokorrean, tokiko proiektu txikiak erori egin dira eta, kuturalki landa eremutik, erabat deskonektatuta bizi gara. Gainera, elikagaien ekoizpena eta banaketa gero eta enpresa gutxiagoren eta handiagoen esku daude.

Hori da daukaguna, baina horri nola eman diezaiokegu buelta? Nik uste, badaudela proposamenak. Azkenengo urteetan agroekologiari eta elikadura burujabetzari lotuta hainbat proposamen jarri dira mahai gainean; gehienak baserritarren arteko antolaketa kolektiboetatik edo mugimendu

sozialetatik etorri dira. Apustu iraunkor baten alde egin behar da, eta hori nahitaez etorriko da.

Aldaketa hori gauzatu ahal izateko zein da bidea?
Eremu desberdinetatik egin daiteke bidea. Arlo pertsonaletik egin dezakegu bide bat. Gure egunerokoan, gutxienez, hiru aldiz jaten dugu eta beraz, hor badaukagu erabaki ahalmen garrantzitsu bat. Izozkailua ireki eta berehala jakingo dugu bertan dauden elikagaiek zenbat errespetatzen duten tokikoa eta ekoizpen eredu jasangarria.

Azken urteetan, proiektu asko jarri ditugu martxan. Getarian bertan, herritar talde bati, astero, Azpeitiko Komuntzo baserrikoek otarra ekartzen digute. Hor badago gure izozkailua betetzeko beste modu bat. Herriko dendaren bat ere hasi da Zarauzko baserritar gazte batzuen produktuak eskuragarri jartzen.

Gero, parte hartzen dugun hainbat espazio kolektibotan ere eragin dezakegu. Esaterako, talde feministan parte hartzen badut, bertan elikaduraz nahiz lehenengo sektoreaz hitz egin dezakegu; edo, talde bazkariren bat antolatuz gero, elikagaiak modu kontziente batean aukeratu ditzakegu. Gure lan eremuan, herrigintzan edo udalgintzan ere berdin. Udalerri mailan gauza asko egin daitezke: ordenantzen bitartez edota hirigintza plan orokorrean lurra babestea, ekoizpen proiektuak edo nekazaritza proiektuak martxan jartzeko laguntzak ematea, elikadura estrategia bat lantzea, turismoa eta merkataritza elikadurarekin lerrokatzea, eskolako, zahar egoitzako edota haur eskolako jantokiei begira proiektu desberdinak lantzea... Erreferentziak baditugu Euskal Herrian, non ikasi eta motibatu: Baztanen, Urduñan, Azpeitin, Oiartzunen...

"Gutxiagorekin bizitzera ohitu behar gara. Ez du esan nahi okerrago biziko garenik, baizik eta beste bizimodu bat eraikiko dugula"

Gauza asko egin daitezke, baina horretarako lehentasuna izan behar du. Gure agendetan egon behar du, bai pertsonalean, bai kolektiboan, bai politikoan. Tokikora itzuli behar dugu, komunitatera, eta ereduari begiratu.

Batzuek diote pandemia honek erakutsi digula berriro ere lurrera eta tokikoa kontsumitzera itzuli behar dugula. Zer diozu horren inguruan? Uste duzu pandemiak, benetan, gure pentsamoldea eta jokatzeko/kontsumitzeko moduak eraldatu dituela?
Hasieran hausnarketa bat egon zen. Adibidez, azokak itxi zituztenean, mobilizazio dezente izan ziren, eta azkenean berriro ere irekitzea lortu zen. Tokiko ekoizleen produktuen salmentak ere igo egin ziren, eta jendeak sukaldean egiten zuen. Azkenean, elikadura esentziala dela nabarmendu zen. Hor egon zen momentu bateko hausnarketa bat, baina gero zer gertatu da? Lehengora bueltatu garela, oro har.

"Konfinamendu hasieran kultura aldaketarako nahia eta eztabaida egon ziren; gero, egunerokoak jan egiten gaitu"

Aldaketa hauek sakoneko aldaketak dira. Zailena da egiteko moduak, ohiturak, aldatzea. Ohitura aldaketa hori ez da epe laburrean etorriko; kultura aldaketa bat da. Hain zuzen, ekofeminismotik eta agroekofeminismotik kultura aldaketa hori planteatzen da.

Desazkunde kultura bat eraiki behar da. Elikadura sistema tokikora ekarri behar dugu; bertakoa eta ekologikoa kontsumitu eta gutxiago kontsumitu behar dugu. Hor, nahitaez, uko egite bat egongo da eta gure pribilegioak interpelatuko dira. Gutxiagorekin bizitzera ohitu behar dugu. Horrek ez du esan nahi, ordea, okerrago biziko garenik, baizik eta bestelako bizimodu bat eraikiko dugula.

Agroekologian asko hitz egiten dugu trantsizio prozesuez. Ibilbide orri bat markatu behar dugu: helburuak eta eman beharreko pausoak zehaztu. Konfinamendu hasieran kultura aldaketa horretarako nahia eta eztabaida egon ziren, baina gero, egunerokoak jan egiten gaitu.

Txikitik has gaitezke gauzak egiten. Nik uste horretaz jabetu behar garela, zer nolako indarra, aukera eta gaitasuna daukagun aldaketa hori egiteko. Norbanakotik, dauzkagun taldeetatik, herritik, gobernantza maila desberdinetatik gauza asko egin ditzakegu. Politika publikoak goitik behera datoz, baina behetik gora ere asko egin dezakegu.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.
Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539



2020/2021 ikasturtean bi talde ari dira euskara ikasten Eskualtxeta kulturgunean. Maila ezberdinetan dabiltza, hasi berriak dira batzuk eta urteak daramatzate besteek. Familia, integrazioa, lana... asko dira ikasteko arrazoiak.

Testua
IURE EIZAGIRRE

Euskara eskolak

PAZIENTZIAREKIN EGITEN DEN BIDEA

Hizkuntzekin lotura duen eraikinik bada Getarian, Eskualtxeta da bat. Ingelesa mutur batean eta euskara bestean. Lasterka heltzen dira txikienak; lasaiago, ikaskideekin eguraldiaz edo asteburuaz hizketan, helduagoak. Ostegun arratsaldea da eta euskara ikasleetako bat sumatu dugu gelara sartzen; irakaslea, Uxoa, dago zain eta urduri dagoela aitortu dio iritsi berriak.

Ordubete beranduago dugu hitzordua beraiekin, elkarrizketa egin eta, besteak beste, euskara ikasteko arrazoiak ezagutzeko. Erantzun nahi dutena nola esan errepasatzen aritu dira; azken eskolan landu zituzten erantzunak.

Bertaratu garenean Ilargi eta Maritxu daude gelan. Ikaskide gehiago dira taldean baina lanak eta betebeharrek ezinezko egin diete gainerakoei gaur bertaratzea. Haien ordezkari ere izango dira bi emakumeak.

Duela lauzpabost urte hasi ziren euskara ikasten, elkarrekin. Iturzaeta Herri Eskolan izaten zituzten orduan klaseak, gela ezberdin batean egunero. Eskualtxetara lekualdatu ziren iaz eta erosoago daude, hala dio Ilargik: "Hemen lasai gaude, gu bakarrik gaude eta hobeto". AEK-ko irakasleak gaineratu du materiala jartzeko lekua ere badutela orain. Hormetako deklinabide zein aditz laguntzaile zerrendak eta irudiak horren erakusle.

Bi solaskideak ezagutu nahian, jatorriaz galdetu diegu. "Ni Ilargi Egaña naiz, Venezuelakoa naiz eta ez naiz Getarian bizi, Zarautzen bizi naiz. Duela 20 urte etorri nintzen. Hiru seme-alaba ditut. Getarian egiten dut lan, Izarri okindegiko *obradore*an; kafetegian ere bai, baina Zarautzen", esan digu batek. "Ni Maritxu Ituarte naiz, Mexikokoa naiz baina orain Getarian bizi naiz. 2010etik bizi naiz Getarian eta nire senarra eta alaba euskaldunak dira", azaldu digu besteak.

Hegoamerikarrak biak, baina jatorri euskaldunekoak, hortaz. Maritxuk Mutrikukoa du aita eta amaren aita ere Bilbokoa zen. "Nire aita zesta-puntako jokalaria zelako joan zen Mexikora; nire aitona ere hala zen", dio. Ilargik, aldiz, aita du getariarra eta ama bilbotarra zen: "Nire anaia eta ahizpa zaharragoak hemen jaio ziren baina ama nitaz haurdun zegoela, Venezuelara joan zen. Anaia gaztea eta ni jaio ginen han". Orain, berriz, denak Euskal Herrian bizi dira.

Hamalau urte zituenean, udan, etorri zen hona lehen aldiz Ilargi eta familiarena zen Augusto tabernan egin zuen lan. Ezagutu zuenetik gustatu zitzaion Euskal Herria eta bertan bizitzeko nahia piztu zitzaion. Maritxuk ere askotan bisitatu zuen Mutrikuko familia, baina bizitzera, senarra Mexikon ezagutu ondoren etorri zen.

Garrantzitsua da aurrekari horiek ezagutzea, izan ere, bi ikasleek euskararekiko duten atxikipena, hein handi batean, familiarekiko lotura sentimentalak eragindakoa da. "Euskara ikasten ari naiz alabari laguntzeko etxeko lanekin eta nire familia ulertzeko. Familia euskalduna da baina nik ez nuen egiten euskaraz", dio Maritxuk. Ilargik "integratzeko eta sentimenduagatik" ekin zion ikasteari.

Euskaraz ikasgelan aritzea handik kanpo egitea baino errazagoa zaiela aitortu digute biek. Batetik batuan ikasten ari direlako eta kalean ez delako hain ohikoa, eta bestetik, kalean urduri jartzen direlako. Ez dira, ordea, horrela sentitzen diren bakarrak, izan ere, Maritxuk dioenez, euskaraz hitz egitea kostatzen zaiola nabaritzean, "batzuk urduri jartzen dira eta ni esaten ahalegintzen ari naizena erantzuten dute". Dena

den, "jendeak eskertzen du euskaraz egiten saiatzea", adierazi digu Ilargik.

Hitz egitea da gehien kostatzen zaiena, baina bilatu dituzte horretarako espazioak. Ilargi, adibidez, saiatzen da lanean euskaraz egiten: "Lankideekin pixka bat eta kafetegian, gehiago, elkarrizketa motzak. Batzuetan urduri jarri eta aldatzen dut hizkuntza baina konturatuta, euskarara itzultzen naiz".

Orain, hala ere, hobeto sentitzen dira. "Nire familia ulertzen dut, berriak...", dio Maritxuk. Gustura daude, bai bera bai irakaslea, bezperan irratia entzun eta albisteak ulertu zituelako. Antzeko sentipena du Ilargik ere: "Elkarrizketa motzak ulertzen ditut eta motibazio gehiago dut".

Ingurukoek badute zeresanik hizkuntza baten ikasketa prozesuan. Maritxuk dio euskaraz hitz egiten duenean, alabak barre egiten diola. Adin kontua dela argitu dio Ilargik, etxean ere antzeko egoera bizi baitu. Alabak, 15 urtekoa, laguntzen dio; semeak, berriz, bere lagunen aurrean euskaraz ez hitz egiteko eskatu dio. Zerbait nola esaten den galdetzean, gainera, bien hizkeraren ezberdintasuna antzematen dute: batuan egiten du Ilargik eta euskalkian seme-alabek. "Hala ere, alabak, nik 'honela' esaten dudala argitzen dit".

Euskaraldiaz galdetu diegu amaitzeko. Duela bi urte parte hartu zutela erantzun digute. "Txapa dugula ikusita, polikiago egiten digu jendeak", dio Ilargik. Maritxuk baieztatu du jendeak azkar hitz egitea dela beraientzat arazorik handiena. Uxoa irakasleak berretsi ditu haren hitzak: "Euskara

ikasleek behar dute parekoek pazientzia izan eta poliki hitz egitea".

Hasiberriak

"Astelehena arte, ondo pasa asteburua" esanez agurtu gaitu Maritxuk. Minutu gutxira heldu dira euskaltegiko bigarren taldeko ikasleak. Lau dira: Beatriz, Manu, Alicia eta Melisa.

Hilabete eta erdi eskas daramate baina, Uxoak azaldu duenez, bizkor ari dira ikasten eta oso maila ona daukate, besteak beste, gehienek lehendik bazekizkitelako zenbait gauza.

Beraien buruak aurkeztu dituzte: "Ni Beatriz naiz. Madrilgoa naiz baina 2008tik Getarian bizi naiz.

Ilargi.

Maritxu.

Beatriz.

Uxoa.

Zerbitzaria naiz eta etxekoandrea naiz"; "Ni Alicia naiz, Mexikokoa naiz eta ingeles irakaslea naiz. 2017tik Getarian bizi naiz eta azarotik euskara ikasten ari naiz"; "Kaixo, ni Manu naiz. Mexikokoa naiz baina orain Getarian bizi naiz. Ekainetik Getarian bizi naiz baina txikitatik etortzen naiz. Eta tabernaria naiz"; "Ni Melisa naiz. Argentinakoa naiz baina 2016tik Getarian bizi naiz. Terapeuta okupazionala naiz baina orain etxekoandrea naiz". Azken biek errepikatu dute gelan ikasi eta atsegin duten hitza: "Kitto".

Euskara ikasten hasteko zenbait arrazoi izan dituzte, hala nola, lanerako behar izatea, integratzea, umeei etxeko lanekin laguntzea edo denbora zein jakinmina edukitzea. Egokitu beharra ere aipatu dute. "Ni aspalditik etortzen naiz Getariara. Euskaraz gehiago ulertzeko etorri naiz ikastarora, gehiago integratzeko", azaldu du Manuk. "Nik uste dut hemen bizitzea erabaki baduzu, ikasi egin behar duzula", gaineratu du Aliciak.

Gogotsu daude, nahiz eta badakiten bide luzea dutela egiteke. "Ikusminez gaude, ea hesiak hausten ditugun", dio Melisak.

Jarraian, ze egun den galdetu die irakasleak, saio denetan bezala. "Bi mila eta... osteguna!", erantzun du Beatrizek. Asteko azken eguna dute –astelehen, astearte eta ostegunetan dituzte eskolak bi taldeek–, ondorioz, motibazio gehiagorekin aritzen dira.

Hala ere, zailtasunez galdetu diegu eta gramatika aipatu digute. "Zenbakiak eta hiztegia errazak dira", dio Melisak, "baina gramatika...", gaineratu Aliciak.

Ikasgelaz kanpo, dagoeneko ari dira euskara erabiltzen. Manuk "dendetan, lanean, familiarekin..." darabilela dio; Beatrizek "lagunekin" eta Melisak "umeekin" ere bai. Tabernariak dira bi –Beatriz eta Manu– eta lanean erantzunak sarri errepikatzeko aukera dutela aitortu dute. Aliciak, berriz, asko ikasi omen du txakurrarekin: "Ez dit lotsarik ematen harekin aritzeak. 'Etorri', 'goazen'... esaten diot".

Gainera, denbora gutxian aldea nabaritu dute. "Entzunak nituen baina esanahirik ez nekien hitz batzuk hemen ikasi ditut. Elkarrizketetan entzun eta ulertu ditzaket orain", dio Melisak. Aliciak, albisteak entzutean, hitzak ulertzeko gaitasuna duela azpimarratu du. Albistegiek ez ezik, musikak, marrazki bizidunek, umeentzako bideoek eta ipuinek laguntzen diete hobetzen, baita jada hizkuntza ohiturak aldatzen doazen familiako kideek ere.

Uxoa.

Manu.

Alicia.

Melisa.

elan euskadi
ONGD - GGKE

Pandemiak solidarioago?

Adituak konbentzituta daude, osasun krisi honen ondoren, sufritzen dutenekiko sentsibilizazio handiagoa izango dugula nahiz eta urrun egon. Krisi honek konturarazi gaitu ez dela ezer betirako eta egun batetik bestera alda daitezkeela gauzak. Orain arte oso seguru sentitzen ginen gure inguru erosoan, eta hirugarren munduko arazoak kezka nahasi gisa ikusten genituen: epidemia nahasmenak, goseteak, oinarrizko artikuluen gabeziak, gorputegi inprobisatuak... Hori guztia oso urrutikoa egiten zitzaigun, "etxera" iritsi zaigun arte.

Horrek ez du esan nahi lehen ez genuenik sentsibilitaterik, hor daude Gobernuz Kanpoko Erakundeak, baita borondatez lana egiten duten hainbat pertsona ere. Baina Hirugarren Munduarekin benetako enpatia, hau da, benetan haien lekuan jartzea fenomeno berria da gure gizartearentzat, eta jaiotza data dauka: martxoaren 14a. Data horretan dekretatu zen alarma egoera eta pixkanaka konturatzen joan gara egoera serioa eta larria dela. Osasun arloko adituek jada esan dute milaka eta milaka pertsona hilko direla munduan, aberatsak nahiz pobreak, beltzak nahiz zuriak...

Alde batetik, jende anitzek darabil galdera hau buruan bueltaka: *Eta hau bukatzean zer?* Bestetik honakoa: *Hirugarren Munduarekin solidariagoak izango al gara denok ahulak garela egiaztatu dugunean, edo atzera egingo dugu eta gure zilborrari gehiago begiratuko diogu guk gure arazoak konpontzearekin nahikoa dugula pentsatuz?* Adituak baikor ageri dira eta benetako aldaketa egongo dela uste dute.

Eddie Ndopu, Namibiako (Afrika) aktibista. Garapen jasangarriaren defendatzaileetako bat izendatu zuen Nazio Batuen Erakundeak.

Maria Silvestre Cabrera Deustuko soziologoaren arabera, arazoa Txinan zegoenean, gure kezka erlatiboa zen; Italiara gerturatu zenean, berriz, gure kezka areagotu egin zen; gurera iritsi denean konturatu eta kezkatu gara arazoaz. Hori da bere diskurtsoa.

Bada beste aditu bat ere, Eddie Ndopu, eredugarri izan dena eta izaten jarraitzen duena. Ndopu Oxford unibertsitatean onartutako lehenengo afrikar elbarria da. Bere gaixotasuna dela-eta hogeita lau ordutan laguntzaile baten beharra dauka.

Eddie Ndopuk honako hau eman du aditzera: "Konfinamendua soilik osasun-neurri gisa ulertu behar da eta ez *leit motiv* geopolitiko bihurtuta. Hau da, estatu batzuek besteekiko isolatuta aritzeak aurrerapena eta gizartearen oparotasuna mehatxupean jartzen ditu".

XIMON ARANGUREN

Imajinatzen?

Ez naiz munduko originalena, eta artista sena duten pertsonek inbidia ematen didate. Marrazki bat egin behar dudanean, zerbait kopiatzera jotzen dut. Era berean, gitarrarekin saltseatzen doinu berri bat asmatzeko intentziotan nabilenean ere, nire adimenak existitzen eta ezagunak diren doinuetara mugatzen nau. Idazteko ere ez dut aparteko abileziarik. Ez naiz munduan imajinazio gehien duen pertsona, eta paper zuri baten aurrean hutsik sentitzen naiz. Hala ere, gauzak imajinatzen ditut, horien artean, noizbait eduki dezakedan zahartzaroa. Zergatik imajinatu hau, eta zergatik gaur hona ekarri? Bada, hilabete honetan Ameriketako Estatu Batuetan egin diren hauteskundeek eta lau urtez presidente izango den Bidenen adinak zer pentsatua eman didatelako.

Hirurogeita hemezortzi urterekin nire bizitza Getarian irudikatzen dut, itsasoari lotuta. Batzuetan, adiskideren batekin txibitan imajinatzen naiz, aldameneko txalupakoari gezurretan, berak egia dioela uste dugun bitartean. Besteetan, bilobaren ume-kotxea eskutan harturik, hiru dikeen buelta behin eta berriro egiten. Soziedadean lagunartean hamaiketako txukun bat egiten ere ikusten dut nire etorkizun urruna, eta karta-jokoan ere irudika nezake nire burua. Horrez gain, futbola ere atsegin dut eta Errealaren partida familia edo lagunekin ikustea asteburuetako plan on bat litzateke.

Ildo beretik, gimnasioan gorputza ahalik eta hoberen mantetzeko ariketa kardiobaskularrak nahiz gihar ariketak egiten ere ikusten naiz etorkizunean. Dena den, badira orain artean "denbora faltagatik" egin ez ditudan eta jakin-mina pizten didaten zenbait ekintza 78 urterekin egin nitzakeenak, hala nola, artearen historiari dagozkion ikasketak egin, eleberriren bat edo ipuin-libururen bat idatzi, Euskal Herriko bazterretara bidaiatu... Aipatutako hauek guztiak, azterketek edo derrigorrezko eginbeharrek sortzen duten presiorik gabe egingo nituzke, kuriositatez eta gehien bat, gozatzeko.

Hau guztia imajinazio hutsa da, eta zer da imajinazioa? Errealitatetik abiatuta eraikitzen d(it)ugun ametsa(k), ameskeria, alegia. Eta zer da errealitatea? Bada, Bidenek 78 urte dituela eta AEBtako agintaritza hartu duela. Ez dut ulertzen! Zer nezesidade?! Adin horretan, pertsona batek zein interes du bere burua halako presiopean jartzeko? Boterea? Dirua? Behin lortu ez zuen hura lortzea, bai ala bai? Ez dut ulertzen!!! Lau urte hauetan bizirik mantentzearekin nahikoa ez, eta mundua gobernatzearen zama hartu du. Ahaleginak eginda ere, ezin dut adin horretako inor irudikatu herrialde bateko presidente karguan. Eta gainera, ez nuke nahi. Nire imajinaziotik kanpo gelditzen dira hainbat gauza, horregatik diot imajinazio eskasa dudala.

Arrantzale Kofradiara bisita

Urriaren 15ean LH 2. eta 5. mailakoak Kofradiara joan ginen. Txikienak 09:30erako joan ziren eta gu eskolan hamaiketako egin ondoren abiatu ginen, euripean. Kofradia zaharraren inguruan zain genuen Emeterio Urresti lehendakaria 11:00etan, harrera egiteko.

Lehenengo, Jose Angelek arrain kaxak nola garbitzen ziren erakutsi zigun. 15 mila inguru garbitzen omen dituzte, makinak erabilita, egunero. Kaxa gehienak berde argiak ziren, txikiak, orain sardina, txitxarroa eta uerbaren garaian erabiltzen dituztenak. Hegaluzearenak, esate baterako, handiak eta grisak izaten dira.

Handik Elkano Arrantzaleen Kofradiara joan ginen. Sartzean, goizean bertan arrantzatutako sardinak erakutsi zizkigun Emeteriok. Ukitu eta hartu ere egin genituen batzuk.

Geroago, sareak gordetzen zituzten lekura joan ginen. Han itsasontzi bakoitzak bere kaiola dauka eta horrela portua txukunago egotea lortu da. Sare konpontzaileak ere ikusi genituen kanpoan lanean.

Ondoren, arrain salmentako lekua erakutsi zigun Emeteriok. *Bafore* bakoitzaren arraina zinta batean etortzen da erosleek ikusteko. Panelean markatzen da zein itsasontzitakoa den. Prezioa jaisten joaten da eta sakatzean islatzen da zein den eroslea. Bitartekariek erosten duten arraina dendetara, arrandegietara... eramaten dute.

Bilera gelan eman genion bukaera bisitari. Han Kofradiako bandera zaharra, baleak harrapatzen erabilitako arpoiak eta sare konpontzaileen margoak ikusi genituen, besteak beste, eta opari bana jaso genuen.

Emeteriok gauza asko kontatu zizkigun. Adibidez, antxoa txikiei ur epelagoa gustatzen zaie eta handiagoei, berriz, hotzagoa. Gaur egun, aurrerapen teknologikoei esker, badakite uraren tenperatura, planktona non dagoen, itsasontzien kokapena... Aurrerapen gehienak oso onuragarriak izan dira.

Kofradiatik eskolarakoan beste sorpresa bat izan genuen. San Anton atzean harrapatutako toiak erakutsi zizkigun Joxek, eta ukitzen ere utzi zigun. Marrazoen familiakoak omen dira eta arrain bibiparoak.

12:00ak aldera iritsi ginen eskolara. Euriak atertu gabe jarraitzen zuen, baina gustura ginen, bisitak goiza argitu zigulako.

Katxopa, neurriekin baina irekita

Kaixo, Urritza kideok!

Hemen gaude, beste hilabete batez, ARTZAPEko txokoan Urritzaren inguruko berriak zuekin elkarbanatzeko asmoz. Dakizuen moduan, pasa den azaroaren 1ean Katxopa Gaztelekuaren laugarren urteurrena izan zen. 2020 urte gorabeheratsu honen udaberrian gaztelekuak ateak itxita izan bazituen ere, urriaren 2an denboraldi berri bati hasiera eman genion.

Ikasturte hasiera hau, orain artekoekin alderatuta, oso bestelakoa izaten ari da, gure bizimoduan eta egunerokotasunean pairatzen ari garen aldaketek eragin zuzena izan baitute Katxopa Gaztelekuan ere. Hala ere, Getariako gazteak eta Urritzako begiraleak elkarlanean jardun gara gaztelekuaren funtzionamendua adosten, eta martxan dihardugu!

Esan dezakegu, denon artean, Katxopa Gaztelekua garai berri honetara egokitu dugula. Beharrezkoak diren segurtasun neurriak ezarri eta funtzionamenduan zenbait aldaketa egin ditugu.

Katxopa Gaztelekuko berrikuntzak

Gaztelekuan, gehienez 25 gazterentzako lekua egongo da (alarma egoeran kopurua 13 pertsonatara murriztuko da).

Derrigorrezkoa da uneoro musukoa jantzita izatea.

Gaztelekura sartzerakoan, tenperatura hartuko da.

Sarrera-irteeratan eskuak garbituko dira.

Ezin da janaririk sartu.

Ate eta leiho guztiak irekita mantenduko dira uneoro.

Segurtasun neurri horiez gain, denboraldi honetako berrikuntza nagusia Gaztelekuko espazioaren antolaketari dagokio, Katxopa Gaztelekua bost gunetan bereizi baitugu:

- Telebista gunea (gehienez 4 gazte).
- Txoko lasaia (gehienez 6 gazte).
- Jolas dinamikoen gunea (gehienez 8 gazte).
- Mahai jolasen txokoa (gehienez 7 gazte).
- Bulegoa (2 begirale)

Aipatu, alarma egoeraren barnean, gaztelekuaren edukiera erdira murriztu dela.

Besterik ez, Urritza kideok! Katxopa Gaztelekura eta Urritzak prestatuko dituen hilabeteroko ekintzetara gonbidatuta zaudete.

Bitartean, zintzoak izan eta zaindu!

ANDRES ALBERDI

Kirrika(n)

Getariatik kanpora ez da hitz ezaguna eta erabilia gure herrian ematen diogun adieran: *kirrikan dago* (= *erdi txispatuta*, *erdi moxkortuta*, *txolinduta dago*; 'alegrillo', 'achispado', erdaraz).
Liburuetan ere ez da askotan ageri; *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n, esaterako, ez da azaltzen. Baina bai Plazido Mujikarenean, eta era honetara ematen du adiera: *kirrikan dago: está alegrillo, chispo*. Ageri da *Orotariko Euskal Hiztegia*n ere, eta hor, era honetara argitzen du: "Alegrillo por el vino (*kirrikan dago*)".

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *info@artzape.eus*era ezagutzen dituzun hitzak.

JOXI ERAUSKIN

Nobela errealista bat

Gure historia hurbileko kontakizunak azaltzen dizkigu Joxean Agirrek nobela honetan, ironia puntu batez zipriztinduta. Taxizale batek Loiuko aireportuan jasotako bezeroei frankismoaren amaierako ETAko hainbat kide ezagunen eta Euskal Herriko politikako zenbait pertsonaien pasadizo xelebreak kontatzen dizkie, betiere bezeroen itxurak adieraz diezazkiokeen ustezko nondik norako ideologikoei aldez aurretik erreparatu ondoren; horien artean ETAn infiltratuta egon zen *El Lobo* espioia.

Bestalde, Agirrezabal idazleak, taxizalearen emaztearen maitaleak, nobela errealista bat idazteko agindua jasoko du, behingoz, editorearen eskutik, eta Mikel Lejarza *El Lobo* satorraren istorioa hautatuko du. Nobela idazten ari dela, ordea, Espainiako zerbitzu sekretuak atzetik dituela konturatuko da, eta Zarauzko Izeta sagardotegitik behera datorrela, atentatu traza duen istripu batean hilko da Agirrezabal idazlea. Hortik aurrera nobela beltz baten tankera hartuko du Joxean Agirreren azken lan honek, eta nor egokiago taxizalea baino erdibidean geratu den nobela errealista hori amaitzeko?

Esan liteke, Agirrek, ironiarekin jolastuta, fikzioaren eta errealitatearen arteko zubiak eraikitzea izan duela helburu eleberri honetan.



GALDETEGIA. Erantzun aurtengo Euskaraldiarekin lotutako galdera hauei. Ea zenbat dakizun!

1. Hiru rol izan dira aurtengo Euskaraldian. Zein da berria?
a) Arigunea.
b) Ari-ari.
c) Jardun.

2. Nork idatzi du Euskaraldiko abestia?
a) Mice.
b) La Basu.
c) Sustrai Colina.

3. Nor da Getariako Euskaraldiko dinamizatzailea?
a) Sara Saizar.
b) Alazne Aizpurua.
c) Egoitz Dorronsoro.

4. Zenbat pertsonek hartu dute parte aurten Getarian?
a) 480 inguruk.
b) 550 inguruk.
c) 420 inguruk.

5. Noiz amaituko da Euskaraldia?
a) Abenduaren 1ean.
b) Abenduaren 6an.
c) Abenduaren 4an.

6. Zein material saldu du aurten Euskaraldiak?
a) Banderatxoak, mantalak, musukoak, galtzerdiak eta kamisetak.
b) Banderatxoak, mantalak, musukoak, poltsak, kamisetak eta lanpasa.
c) Lanpasa, poltsak, belarritakoak, kamisetak eta katiluak.

PUZZLEA. Ba al dakizu zein den falta den pieza?

OSATU ESALDIA. Ondoko definizioak **ezkerretik eskubira** beteta, Euskaraldiko dinamizatzailearen esaldi bat osatuko duzu.

1. Gizabanakoetatik. **2.** Bukaturen aurkakoa. **3.** Gara lehenaldian. **4.** *... 40 urte gertatu zen.* **5.** Bat eta bat. **6.** Hamabi hilabeteko denbora tarte. **7.** Juntagailua. **8.** Begien bidez sumatu. **9.** Da, lehenaldian. **10.** Gure hizkuntza. **11.** Normal bihurtzeko. **12.** Multzoetara. **13.** Heldu. **14.** Nahitaezko gauza. **15.** Zaldiaren gaineko jarlekua.



ERANTZUNAK

GALDETEGIA: 1. a, **2.** c, **3.** a, **4.** a, **5.** c, **6.** b.

ESALDIA: "Norbanakoetatik hasi ginen duela bi urte eta ikusi zen euskara normalizatzeko taldeetara iritsi behar zela", Sara Saizar. Artzaperen 208. alea.

PUZZLEA: 2.

2020ko ABENDUA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

2 Asteazkena
Pentsio diskriminatzaileak hitzaldia
Ordua: *19:00*
Lekua: *Ulpiano Etxea*
Antolatzailea: *Mariñak Getaiko talde feminista*
Batirtze Diezek eta Oneka Emakume Pentsionistak taldeko kideek emango dute. Edukiera mugatua izango da eta osasun- eta segurtasun-neurriak hartuko dira.

2-4 Az.-Or.
Musika Eskolako matrikulazioa
Antolatzailea: *Juan Sebastian Elkano Musika Eskola.*
Abenduaren 2an eta 3an, 15:30etik 18:30era, 943 140 337 telefono zenbakira deitu edo idazkaritza@getariakomusikaeskola.eus zein zuzendaritza@getariakomusikaeskola.eus helbideetara idatzi. Abenduaren 4an, 15:00etatik 17:00etara, musika eskolan bertan.

3 Osteguna

Euskararen Eguna

Euskal kantak abesteko saioak
Ordua: *09:00-16:00*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskolako aretoa eta HHko ataria*
Urtero bezala ezingo dutenez ospatu Euskararen Eguna, ikasgelaka, euskal abestiak kantatuko dituzte ordu erdiko saioetan. LH1ekoak hasiko dira. Hiru euskal abesti kantatuko dituzte: "Euskararen txantxangorria", "Aldapan gora" eta taldeak aukeratutakoa. Bi irakaslek gitarra joko dute.

Tiritatxorekin egin irri ikuskizuna
Ordua: *16:30 eta 17:30*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskolako aretoa*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Irrien Lagunakek haurrei eta familiei zuzendutako emanaldia. Tiritatxo pediatra goxo eta alaia da. Beti dago laguntzeko prest. Irriarekin jolas egitea eta istorio dibertigarriak kontatzea maite du. Modu dibertigarrian osasuna eta irria elkarrekin gozatzeko errezetak banatuko ditu.
Edukiera mugatua izango da eta izen-ematea aurrez egin beharko da turismo bulegoan.

10 Osteguna
Malen Etxea. Zaintzaren esklabo dokumentalaren emanaldia
Ordua: *19:00*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskolako aretoa*
Antolatzailea: *Mariñak Getaiko talde feminista*
Maitane Subijana getariarrak zuzendutako lana. Edukiera mugatua izango da eta osasun- eta segurtasun-neurriak hartuko dira.

13 Igandea
Erroa eta geroa. Emakume baserritarren ahotsa dokumentalaren emanaldia
Ordua: *19:00*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskolako aretoa*
Antolatzailea: *Mariñak Getaiko talde feminista*
Sorginatxurrak taldeak egin zuen dokumentala. Aretoko edukiera mugatua izango da eta osasun- eta segurtasun-neurriak hartuko dira.

19 Larunbata
Amoria&Dolore. Elkano, lehen mundubira dantza ikuskizuna
Ordua: *19:00*
Lekua: *Sahatsaga kiroldegia*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Kresala dantza konpainiako 30 dantzarik hartuko dute parte. Faustino Aranzabal izan da koreografoa eta Enrike Solinis arduratu da musikaz. Edukiera mugatua izango da eta sarrerak turismo bulegoan egongo dira salgai.

24 Osteguna
Olentzeroren etorrera

Cristobal Balenciaga Museoa

5-8 Lr.-As.
Deskontu berezia 2x1
Egun horietan 11:00etatik 15:00era irekiko dute museoa. Getariako bizilagunek, Zarauzkoek, Zumaiakoek eta Aizarnazabalgoek 2x1 deskontuarekin bisitatu ahal izango dute. Bisita gidatuak ere izango dira: 11:15ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izen-ematea bisitaren aurretik egin daiteke, sarrera eskuratzean.

5 eta **7** Lr. eta Al.
Azaletik bolumenera tailerra
Ordua: *11:00-13:00*

6 eta **8** Ig. eta As.
Balenciaga familian gymkhana
Ordua: *11:00-13:00*

Informazio gehiagorako: 943 008 840 edo info@cristobalbalenciagamuseoa.com.

Agenda eguneratua ikusteko,
www.artzape.eus

Saiazgetaria
HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

bitxiak baino gehiago
glu glu
Tel. 943 14 03 75
glu16glu@gmail.com

ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
680880905
676532067
GETARIA
www.eraberri.com

Josune Uzin Berasaluze
Fisioterapeuta
EFEO zenbakia: 1.100
eskura
fisioterapia zentroa
697 961 208
Elkano kalea 9, behea

EROSKI-SANTIYO JANARI DENDA
SAHATSA JANTZI DENDA
NIEVES ARRANDEGIA
ELKANO ARRANDEGIA
GETARIANO GOZOTEGIA, KAFETEGIA
IZARRI OKINDEGIA, GOZOTEGIA, KAFETEGIA GANIX ARAKISTAIN OSTEOPATIA ZENTROA DONA-DONI AZOKI DENDA
HARRITARTE LIBURU DENDA MAIDER FISIOTERAPIA, OSTEOPATIA, NUTRIZIOA CETARIA ITSAS DENDA GLUGLU BITXI DENDA
EUGENIO URANGA ASEGURUAK IZASKUN ILE APAINDEGIA TABAKO DENDA AMONA MARIA DELICATESSEN
MAISOR KONTSERBAK BALENCIAGA ODONTOLOGIA ZENTROA ZUHAITZ HELAR DENDA ILE-ARGI ILE APAINDEGIA
SALANORT GETARIAKO ARTISAU KONTSERBAK SOPAS ARGI DENDA BAIGARBI IKEZTEGIA PAKI EDERGINTZA
BABEXA
Getariako dendari elkartea

ASKIZU
FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINTZA BEREZIAK
943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

www.artzape.eus

egin bazkide

Txeruko postontzian // info@artzape.eus

Izen-abizenak:	
Helbidea-Herria:	
Telefonoa:	
Helbide elektronikoa:	
Kontu zenbakia:	
Banketxea:	

Urtean 25€ - Getariatik kanpo bidaltzea 30€

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta

Mantenua

Informatika akademia

Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com